

# ERREGU BAT



(SAN JOSÉ-RI)

Aita San José Gloriosua  
 birtute denen arriya,  
 zeruko intzez guritutako  
 lore chit didizariya;  
 Ama Birjiñen senar on eta  
 Jesús-enaita garbiya,  
 eriotzeko azken orduko  
 mundutarren gidariya,  
 guk ere nola José izena  
 degun munduan jarriya,  
 eta izanik San José-gana  
 barrengo fede biziya,  
 eskatzen degu lur triste ontan  
 izan zazula errukiya,  
 emanaz guri azken orduko  
 ondo iltzeko graziya,  
 utzirik gure barrenetatik  
 erru char degun guziya;  
 egizu jarren! zeru on ortan  
 gu izateko tokiya,  
 goza dezagun beti betiko  
 pare gabeko Gloriya.

JOSÉ ARTOLA.

